

# Egoeraren Azterketa



*Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa*

**Sinaturiko kontratuen %92a  
behin-behinekoa da**

**10.886 langile erregulazio  
espedienteek jota**

**Azken urtean, langabetuen  
kopurua 95.000 ingurukoa da**

**Ekonomiek haziz jarraitzen dute**

**Toledoko eta Egonkortasun Itunek:  
pentsioak eta ongizatea murriztu**

# Hego Euskal Herriko (\*) lan eta ekonomi egoeraren adierazleak

ADIERAZLEA	NEURRIA	AZKEN DATA	AZKEN DATUA	12 HILABETE LEHENAGO	2002
<b>ENPLEGUA ETA LANGABEZIA</b>					
JARDUERA TASA	%	03 III	69,9	69	69,06
EUROPAKO BATASUNEKO "	%	2001	69	68,9	68,9
LANEAN DAGOEN BIZTANLERIA	KOPURUA	03 III	1.149.300	1.133.200	1.129.400
ALOKAIRUPEKO BIZTANLERIA	KOPURUA	03 III	916.300	901.800	896.100
ALDI BATERAKOTASUN TASA	%	03 III	31,7	33,2	32,01
" EUROPAKO BATASUNA	%	2001	13,2		13,2
BIZTANLERI LANGABETUA	KOPURUA	03 III	94.100	96.600	101.200
LANGABEZI TASA	%	03 III	7,6	7,9	8,24
EUROPAKO BATASUNEKO "	%	03 IRAI	8	7,8	7,8
ELGEko "	%	03 URR	7,2	6,9	7,1
GAZTEEN LANGABEZI TASA	%	03 III	19,9	17,4	18,96
EUROPAKO BATASUNEKO "	%	03 IRAI	15,7	15,1	15,1
EMAKUMEEN LANGABEZI TASA	%	03 III	10,4	12	11,58
EUROPAKO BATASUNEKO "	%	03 IRAI	9	8,7	8,8
SINATURIKO KONTRATUAK	KOPURUA	03 URT-URR	791.940	765.219	216.026
MUGAGABEKO KONTRATUAK	KOPURUA	03 URT-URR	62.769	65.397	20.039
<b>ENPLEGU ERREGULAZIOA</b>					
ONARTURIKO FITXAK	KOPURUA	03 URT-UZT	265	244	423
ERAGINDAKO LANGILEAK	KOPURUA	03 URT-UZT	10.886	4.695	8.130
LAN ISTRIPUAK					
BAJA HARTZEN DUTEN LANGILEAK	KOPURUA	02 URT-EKAI	34.267	36.453	70.736
HILDAKOAK ETA LARRIAK	KOPURUA	02 URT-EKAI	466	505	923
<b>ESKAINZA ETA ESKARIA</b>					
PRODUKZIO INDUSTRIALA EAEn	% ALD.	03 URT-IRAI	0,8	-1,5	-0,8
JARDUERA INDUSTRIALA NAFARROAn	% ALD.	03 EKAI	6,6	4,3	9,0
PRODUKZIO AHALMEN ERABILERA EAEn	%	03 III	78,9	80,2	82,1
BPGa EAEn	% ALD.	03 II	2,2	1,6	1,8
BEGa NAFARROAn	% ALD.	03 II	3	2,7	2,8
BPGa ESTATUAN	% ALD.	02 II	2,1	2,1	2,1
BPGa EUROPAKO BATASUNEAN	% ALD.	03 III	0,6	1,2	1,4
<b>PREZIOAK</b>					
12 HILEETAKO KPIa ESTATUAN	%	03 URRIA	2,6	4	4
" EUROPAKO BATASUNEAN	%	03 URRIA	1,8	2,1	2,2

\* Adierazleak Hego Euskal Herriari dagozkio. Bestelako kasuan lurraldea zehaztuko da.

Iturriak: Eustat, Instituto de Estadística de Navarra, Eurostat, OCDE, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Osalan, INSL, INEM, INE.



# Aurkibidea

<b>SARRERA</b> .....	<b>3</b>
<b>EGOERA SOZIAL ETA EKONOMIKOARI BURUZKO IRUZKINAK</b> .....	<b>4</b>
1. Behin-behinekotasuna gora 2003ko 3. hiruhilekoan .....	4
2. 2003: erregulazio espedienteen urtea .....	5
3. Ekonomiaren bilakaerea .....	6
<b>TOLEDOKO ITUNARI EGINDAKO ALDAKETEI BURUZKO BALORAZIOA</b> .....	<b>8</b>
1. Sistemaren izaera kontributiboari buruz .....	8
2. Pentsiodunen erosteko ahalmena bere horretan mantentzea .....	8
3. Erretiratzeko adina .....	8
4. Enplegura zuzendutako kotizazioak .....	9
5. Finantzaketa-iturriak bereiztea eta argitzea .....	9
6. Erreserba Fondoa .....	9
7. Sistema osagarriak .....	9
8. Modernizazioa eta herritarrentzako informazioa .....	9
Gomendio gehigarriak .....	10
Ondorioak .....	10

## EGOERAREN A Z T E R K E T A

### Sarrera

Egoeraren Azterketaren 93. zenbaki honetan Hego Euskal Herriko enpleguaren 3. hiruhileko informazioa aztertzen dugu. Enpleguaren kalitate txarra eta ahultasuna dira berriro ere beronen ezaugarri nagusiak. Lehena, erregulazio espediente ugariekin neurtua; bigarrena, behin-behinekotasun tasa altuekin. Ekonomiak, orokorrean, hasiz jarraitzen duela ere ikusten dugu, eta baita prezioek ere.

#### ERABILITAKO SIGLAK

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
ELGE	Ekonomi, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
BPG	Barne Produktu Gordina
BEG	Balio Erantsi Gordina
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
BJA	Biztanleria Jardueraren Arabera
BAI	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
PII	Produktzio Industrialaren indizea
JII	Jarduera Industrialaren Indizea
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
INE	Instituto Nacional de Estadística

\* Txosten hau 2003.eko azaroaren 18an eguneraturiko informazioarekin burutua izan da.

# Egoera sozial eta ekonomikoari buruzko iruzkinak

## 1. Behin-behinekotasuna gora 2003ko 3. hiruhilekoan

16 eta 65 urte bitarteko biztanleriaren jarduera tasa %69,9koa izan da 2003ko 3. hiruhilekoan (aurreko hiruhilekoan baino 7 hamarren altuagoa). Gizonezkoena (%81,2) 1,1 puntu igo da aurreko hiruhilekoarekiko, eta emakumeena (%58,5) berriz, 3 hamarren. Horrela, gehitu egin da jarduera tasak sexuaren arabera lehendik zuen aldea, eta gizonezkoena emakumeena baino 22,7 puntu altuago izatera heldu da.

Lanean dagoen biztanleria 1.149.300 pertsona-koa izan da, aurreko hiruhilekoan baino 14.000 gehiago eta 12 hilabete lehenago baino 16.100 gehiago. Aurreko hiruhilekoan ez bezala, oraingo honetan sorturiko lanpostu gehiago izan dira gizonezkoentzat (9.000) emakumezkoentzat (5.000) baino. Hala izanik, arlo honetan ere gehitu egin da sexu artean lehendik zegoen ezberdintasuna; ez da ahaztu behar, lanean dagoen biztanleriaren %59,7a gizonezkoa dela, eta %40,3a baino ez dela emakumezkoa.

Lanean dagoen biztanleriaren gehiengoa (%59,8a) zerbitzuen sektorean aritu da. Hain zuzen ere, 687.900 izan dira sektore honetako langileak, aurreko hiruhilekoan baino 11.500 gehiago. Industriak jarraitzen dio, lanean dagoen biztanleriaren % 27,7arekin; 318.100 izan dira sektore honetako langileak, aurreko hiruhilekoan baino 2.600 gehiago. Eraikuntza sektorea da hurrengoa, lanpostuen %9,9a bereganatu duelarik. 113.300 langilerekin, 3.200eko igoera izan du hiruhilekoan. Azkena, lehen sektorea da, %2,6arekin. 30.000 langile ihardun dira bertan, eta hiruhilekoan jaitsiera izan duen sektore bakarra da, 3.400ekoa izanik berau.

## LANEAN DAGOEN BIZTANLERIA, SOLDATAPEKOA ETA LANGABETUA. HEGO EUSKAL HERRIA

	2003-III	2003-II	2002-III
<b>Enplegua guztira</b>	<b>1.149.300</b>	<b>1.135.300</b>	<b>1.133.200</b>
-Zerbitzuetan	687.900	676.400	674.600
-Industrian	318.100	315.500	320.700
-Eraikuntzan	113.300	110.100	106.000
-Lehen sektorean	30.000	33.400	31.800
<b>Soldatapeko biztanleria</b>	<b>916.300</b>	<b>896.000</b>	<b>901.800</b>
<b>Langabetuak</b>	<b>94.100</b>	<b>95.600</b>	<b>96.600</b>

Iturriak: Eustat eta Instituto de Estadística de Navarra

Soldatapeko biztanleria 916.300 pertsonatakoa izan da, aurreko hiruhilekoarekiko 20.300eko igoera suposatzen duelarik honek. Honek esan nahi du, 6.300ean murriztu dela soldatapekoa ez den langileria. Soldatapeko langileriaren kasuan ere, igoera handiagoa eman da gizonezkoetan (16.200) emakumezkoetan (4.100) baino. Hala ere, sexu arteko ezberdintasuna zerbait baxuagoa da soldatapeko biztanleriaren kasuan lanean dagoen biztanleri osoarenean baino; izan ere, soldatapeko langileriaren %57,8a da gizonezkoa, eta %42,2a emakumezkoa.

Alokairupekotasan tasa %79,7koa izan da, aurreko hiruhilekoan baino 8 hamarren altuagoa. Gizonezkoena (%77,1) 1,4 puntu igo da hiruhilekoan, eta emakumeena (%83,6) bere horretan mantendu da.

Behin-behinekotasun tasa %31,7koa izan da, aurreko hiruhilekoarekiko 2 hamarren igo delarik, eta aurreko urtearekiko 1,5 puntu jaitsi. Gizonezkoena (%27,2) bere horretan mantendu da, emakumezkoena (%37,7) 6 hamarren igo da, eta gazteena (%68,9) ere 4 hamarren igo da.

## SOLDATAPEKO BIZTANLERIAREN EGOERA HEGO EUSKAL HERRIAN. 2003-III

	Gizonezkoak%	Emakumezkoak%	Guztira%
Behin-behinekoak	27,2	37,7	31,7
Behin-betikoak	72,8	62,3	68,3

Iturriak: Eustat eta Instituto de Estadística de Navarra

94.100 izan dira langabezi egoeran egon diren biztanleak, aurreko hiruhilekoan baino 1.500 gutxiago. Langabeziaren jaitsiera (1.500) sortu



diren enpleguen kopurua (14.000) baino askoz txikiagoa da, iharduera tasak gora egin duela. Azken urtean langabetu kopurua 95.000 inguruan mantentzen ari da.

Aurtengo 3. hiruhilekoan emakumeetan baino ez da eman jaitsiera langabetu kopuruari dagokionez, 1.500ekoa izanik berau. Hala ere, biztanleria langabetuaren %56,7a emakumezkoa da, eta %43,3a gizonezkoa.


Langabezi tasa %7,6koa izan da hiruhilekoan, aurrekoan baino 2 hamarren baxuagoa, eta urte bete lehenago baino 3 hamarren baxuagoa. EBeko langabezi tasa %8koa izan da irailean, gurea baino 4 hamarren altuagoa. Gizonezkoena %5,6koa izan da Hego Euskal Herrian (HEH), hamarren bat jaitsi delarik hiruhilekoan, eta puntu erdi igo urte beteko epean. EBeko gizonezkoen langabezi tasa %7,3koa izan da, gurea baino 1,7 puntu altuagoa. Hego Euskal Herriko emakumeen langabezi tasak, %10,4koa, 3 hamarreneko jaitsiera izan du hiruhilekoan, eta 1,6 puntutakoa urtean. EBeko emakumeen langabezi tasa %9koa izan da, gurea baino 1,4 puntu baxuagoa. Gazteen langabezi tasa %19,9koa izan da Hegoaldean, 6 hamarren murriztu delarik hiruhilekoan eta 2,5 puntu igo urtean. EBeko gazteen langabezi tasa %15,7koa izan da, gurea baino 4,2 puntu baxuagoa. Laburbilduz, HEHko langabezi tasa orokorra zerbait baxuagoa da EBekoa baino, eta nahiko baxuagoa gizonezkoen kausan. Hego Euskal Herriko emakumeen langabezi tasa ordea, nahiko altuagoa da EBekoena baino, eta gazteena, askoz ere altuagoa.

Urtarriletik urrira bitartean 791.940 kontratu sinatu dira, aurreko urteko epealdi berdinean baino 26.721 gehiago. Hala ere, hauetariko 62.769 baino ez dira izan behin-betikoak, hau da, sinaturiko kontratu guztien %92a behin-behinekoa izan da. Honek igoera bat suposatzen du iaz sinaturiko behin-behineko kontratu kopuruarekiko, portzentaia hau %91,5ekoa izan baitzen joan den urtean.

## 2. 2003: erregulazio espedienteen urtea

Urtarrila eta uztaila bitartean 265 erregulazio espedienteren fitxa estatistikoak baimendu dira, aurreko urteko epealdi berdinean baino 21 gehiago. 10.886 langileri eragin die hauek, iaz baino 6.191 gehiago. Zifrok baieztatu egiten dute Egoeraren Azterketaren aurreko aleetan esaten genuena: 2003ko enpleguaren ezaugarriarik adierazgarriena, ematen ari diren erregulazio espedienteen ugaritasuna dela. Izan ere, alokairupeko biztanleriaren ia %1,2ak jasan du espedienteren bat aurtengo lehen 3 hiruhilekoetan. Ez da ahaztu behar, gainera, espedienteok aurkezten dituzten enpresa asko, mozkinak lortzen ari direla, guztiz arbuigarria dena.

### BAIMENDURIKO ERREGULAZIO ESPEDIENTEEN FITXAK ETA ERAGINDAKO LANGILEAK. HEGO EUSKAL HERRIA. URTARRILA-UZTAILA 2003.



Iturria: Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales


EAEko Produkzio Industrialaren Indizea %0,8a hazi da urtarrila eta iraila bitartean aurreko urteko epealdi berdinarekiko. Honek, hazkunde motelagoa suposatzen du urtarrila eta abuztua bitartean izandakoa baino. Egoeraren Azterketaren aurreko zenbakian esaten genuen bezala, Nafarroako Jarduera Industrialaren Indizeak %6,6ko hazkundera izan du urtarrila eta ekaina bitartean, aurreko urteko epealdi berdinarekin alderatuz. EAEko Produkzio Ahalmenaren Erabilera %78,9koa izan da urteko 3. hiruhilekoan, mantentze bat suposatzen duena aurreko hiruhilekoarekiko.

Prezioak 7 hamarren igo dira berriro ere urrian zehar. Era honetara, urteko KPI metatua %2,1an kokatzen da, eta urteartekoa %2,6an. Urte bukaera orduko prezioak tamainan jaitsi behar-ko litezke beraz, inflazio arloan espainiar gobernuaren aurrikuspenak bete zitezten.

Prezioen hazkundearen aurrikuspenak behin eta berriro ez betetzeak, bere hitzarmen kolektiboak aurrikusitako KPIaren baitan negoziatuak dituzten langileak kaltetzen ditu alde batetik, eta talde kaltetuenak bestetik, bai Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren (LGS) jasotzaileak, bai pentsiodunak. Ondorioz, ELAK aurrikusitako KPIa erabiltzea arbuiatzen du kasu biotarako, beronen helburu bakarra taldeon sarrerak murriztea baino ez delako, eta aurreko urteko KPIa erabiltzea oinarritzat aldarrikatzen du. Espainiako Gobernuak hurrengo urtean LGSaren igoera berriro %2koa izango dela aurreratu du.

Urte bukatzeko 3 hiletako KPIaren datua baino ez zaigunean falta, grafikoan ikus daitekeena da prezioek izandako bilakaera.

## PREZIOEN BILAKAERA. ESPAINIAR ESTATUA, URTARRILA-IRAILA 2003.



Iturria: INE

## 3. Ekonomiaren bilakaera


EAEko BPGa (Barne Produktu Gordina) %2,2a hazi da bai 2003ko lehen hiruhilekoan eta bai bigarrenean. Honek, gainditu egiten du 2002ko hiruhileko guztietan izandako hazkundera (%1,8, %1,6, %1,6 eta %1,7 hiruhilekoz-hiruhileko). Nafarroako BEGa (Balio Erantsi Gordina) %3,1 hazi da urteko lehen hiruhilekoan, eta %3a bigarrenean. Nafarroan aurten izandako hazkundera ere gainditu egiten dituzte iazko epe berdinean izandakoak (%2,6, %2,7, %2,9 eta %3,1 izan ziren hurrenez hurren 2002ko hiruhilekoetako hazkundera).

Espainiar Estatuko BPGa %2,4 hasi da urteko lehen hiruhilekoan, %2,1a bigarrenean, eta Espainiako Bankuak %2,3ko hazkundera aurrikusi du 3. hiruhilekorako. Bere aldetik, EBeko (Europako Batasuna) ekonomiak %0,9ko hazkundera izan du lehen hiruhilekoan, %0,5koa bigarrenean eta %0,6koa hirugarrenean. Munduko ekonomiaren motorra den Estatu Batuetako ekonomia %1,4a hazi zen 2003ko lehen hiruhilekoan, %3,3a bigarrenean eta %7,2a hirugarrenean. EEBBetako epealdi solte-etako datuak oso esanguratsuak ez badira ere, ekonomia geldialditik ateratzen ari denaren seinaleak agertzen ari dira.



2003ko hazkunderen aurrikuspenei dagokienez, oso ezberdinak dira EBeko estatu ezberdinen datuak. Herbeherak (%0,9) eta Portugalek (%0,8) iazkoak baino BPG hazkunde txikiagoak aurrikusten dituzte 2003rako. Alemaniarentzat ordea, %0ko urtearteko hazkunde tasa dago aurrikusia, hau da, iazko hazkunde berdina izango duela espero da. Beste estatuentzat iazkoa baino hazkunde handiagoa dago aurrikusita, EBeko BPGaren urtearteko batez-besteko hazkunde aurrikusia %0,8koa izanik. Nafarroa, aurrikuspenik handiena duen Greziaren (%4,1) atzetik legoke, eta EAE, bigarren altuena duen Espainiaren (%2,3) atzetik. Orokorrean esan daiteke beraz, banakako kasuetan salbu (garrantzi ekonomiko handikoak kasuotariko batzuk), hazkunderak aurrikusten direla ekonomietan 2003rako, eta beraz, ezin daiteke esan orokorrean geldialdian gaudenik, nahiz eta ekonomiek hazkunde garaian baino gutxiago hazten diharduten.

### 2003RAKO BPGAREN HAZKUNDEEN AURREIKUSPENAK. EUROPAKO BATASUNA



Iturriak: Europako Batzordea, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua.



# Toledoko Itunari egindako aldaketei buruzko balorazioa

Madrilgo Diputatuen Kongresuan, berriztatu egin da Toledoko Ituna. Batzorde batek idatzi duen testu berriak argi uzten du, hitzaurrean bertan, Toledoko Itunaren norabide berean doala, hau da, ez dela aldaketa handirik egingo. Bere garaian, Ituna arbuiatu egin genuen, bai eta bera onartu zenetik pentsioen inguruan egin izan diren erreforma ezberdinak ere.

Oraingoan erantsi zaizkion berritasun nagusienetarikoa bat, Europako eremuan kokatuta aurkezten dela Toledoko Ituna da, eta, hori aprobetxatuz, Egonkortasun Ituna betetzeko beharra azpimarratzen da behin eta berriro. Bide batez, argi uzten da aurrekontuen multzoan defizit publikorik ez edukitzearen helburuak lehentasuna duela beste edozeinen gainetik, hala nola, gizarte ongizatearen gainetik; hori horrela izanik, pentsio sistemako superabitak gizarte gastuarekin inolako zerikusirik ez duten beste gastu batzuetara zuzentzeraino heltzen da. Betekizun honek berarekin darama Ituna osatzen duten 14 puntuetan aurrekontu-murrizketak. Batez ere, ondorengo hauek aztertzea interesatzen zaigu:

## 1. Sistemaren izaera kontributiboari buruz

Puntu honek jasotzen duenez, "kontributibitate printzipioa indartzen segitu behar da, sistemaren oreka finantzarioa mantentzeko oinarriko elementua den aldetik". Horrek argi uzten du zein den testuan islatzen den kontributibitatearen esanahia: pentsio publikoak murriztea, biztanleria zahartzean pentsioen sistema publikoa defizitarioa izan ez dadin.

Horrez gain, "pentsioen eta egindako kotizazio-ahaleginen arteko proportzionaltasun handiagoa lortzen segitzea gomendatzen da, azken urteotan egin denaren ildotik". Hots, asmoa pentsio berriak murriztea da:

- a) Pentsioa kalkulatzeko aintzat hartzen den urte kopurua handituz.
- b) Urte gutxiagotan kotizatu dutenek kobratuko duten zenbatekoa murriztuz.

## 2. Pentsiodunen erosteko ahalmena bere horretan mantentzea

Batzordeak "pentsiodunen erosteko ahalmena mantentzea" defendatzen du, "legeak bermatzen duen bezala"; baina, aldi berean, Gizarte Segurantzako Sistemaren aurrekontu-orekaren menpe uzten du pentsiodunen erosteko ahalmena mantentzeko aukera. Hortaz, kontu publikoen emaitzak defizitarioak badira, pentsiodunen erosteko ahalmena murriztu egin ahalko da.

Era berean, "benetako inflazioa aurrikusitakoa baino txikiagoa izateagatik erosteko ahalmenak izan ditzakeen irabaziak pentsioetan izaera iraunkorrez finkatuko direla bermatzen segitu behar dela" dio, "erosteko ahalmenak prezioen portaeraren ondorioz izan ditzakeen hobekuntzak daudenean, beheranzko zuzenketa saihestuz". Horrek esan nahi du pentsioen erosteko ahalmena hobetzeko aukera bakarra benetako inflazioa aurrikusitakoa baino txikiagoa izatea dela, baina hori behin bakarrik gertatu da Espainiako gobernuak inflazioaren inguruko aurrikuspenak egiten dituenetik. Beraz, guztiz ezeztatuta geratzen da pentsiodunen kolektiboaren erosteko ahalmena hobetzeko edozein aukera.

## 3. Erretiratzeko adina

Testuan aipatzen denez, "adineko langileek lan-merkatuan denbora luzeagoz jardutearen abantailak eztaba daezinak dira, oso onuragarria delako bai eurentzat, bai euren ingurukorentzat, bai gizarte osoarentzat; izan ere, horrek, langile horien esperientzia eta ezagutza aprobetxatzeko aukera emateaz gain, eragin positiboa du Pentsioen Sistemari". ELA ez dago ados adineko langileek lan-merkatuan denbora luzeagoz egotea onuragarria delako horrekin, langile horiek jasan beharko dituzten ondorio kaltegarriez gain, neurri horrek gazteen enpleguaren kontra jotzen du eta.





## **4. Enplegura zuzendutako kotizazioak**

Emakumeen enplegura zuzendutako hobariak indartzeari buruz balorazio positiboa egin ondoren, "langile nagusientzako laguntza areagotzea komeni dela" aipatzen du testuak, "aurretiaz jubilatzeako aukera mugatuz eta lan-bizitza goizegi uzteagatik pizgarriak kenduz, hori dena lan-bizitza, langileen borondatez, erretiratzeko adinetik harago luzatzea lortzeari begira". Emakumeen kolektiboarentzako (eta gainerako kolektiboentzako) hobariei dagokienez, ELAk zalantzan jartzen du horrelako neurriek enpleguaren bolumenean izan dezaketen eraginkortasuna. Era berean, ELAk erabat arbuatzen du, langileen lan-bizitza erretirorako adinetik harago luzatzea, eta baita berau lortzeko, fondo publikoak erabiltzea ere. Halaber, aurretiazko jubilazioak mugatzen segitzearen kontra dago.

## **5. Finantzaketa-iturriak bereiztea eta argitzea**

Batzordeak azpimarratzen duen arabera, kotizazio gabeko prestazioak Estatuaren Aurrekontu Orokorren bidez ordaindu behar dira, eta kotizaziopekoak, funtsean, gizarte-kotizazioekin ordainduko dira.

Kotizaziopeko pentsioak gizarte-kotizazioen bidez finantzatzen badira, logikoa litzateke kotizazio horiek sorrarazten dituzten superabiltak Erreserba Fondoa zuzkitzeko erabiltzea, pentsio publikoen inguruan etorkizunean sortuko bide den arazoa zuzentzen laguntzeko. Gizarte-kotizazioak, ordea, kotizaziopeko prestazioak ordaintzeko ez ezik, aurrekontu-oreka lortzeko ere erabiltzen dira, adibidez, nahiz eta hori guztiz onartezina izan.

Gainera, iturriak bereizteko gomendio hori bere garaian ere onartu zen jadanik, baina orain arte ez da bete; beraz, bidezkoa da oraingoan beteko ote den duda egitea.

## **6. Erreserba Fondoa**

Testuak ez du argi adierazten gizarte-kotizazioen superabita Erreserba Fondora bideratuko denik, neurri hori egoera ekonomikoarekin lotzeaz gain, "batez ere" eta interpretazio ezberdina egiteko aukera ematen duten antzeko berbak erabiltzen direlako.

## **7. Sistema osagarriak**

Batzordeak egiaztatzen duenez "Espainiako aurrikuspen osagarriaren garapen maila askieza da, eta indartzen segitu behar da". Era berean, "negoziatio kolektiboa enpresen aurrikuspena handiagotzeko bide estrategikotzat" hartzen du.

Gizarte Segurantzako pentsio sistema publikoa da pentsiodunen kolektiboaren duintasuna sustatu beharko lukeena, eta indartu eta bermatu beharko litzatekeena. Beraz, pentsio sistema osagarriak sistema publikoaren osagarria baino ez luke izan beharko, kasua balitz.

Edonola ere, pentsio osagarri horien kudeaketa publikoa izan liteke, baina hori planteatu ere ez da egiten.

Pentsio osagarri indibidualei eta negoziatio kolektibokoei dagokienez, azken horiek tratamendu fiskal hobea eduki beharko lukete (baina inola ere ez pentsio publikoena baino hobea). Negoziatio kolektiboaren bidez, etorkizunerako sarrera berdina goak eta kolektibo zabalago batentzat ematen dira, eta, gainera, horrela, sarrera publikoak gutxiago murrizten dira.

## **8. Modernizazioa eta herritarrentzako informazioa**

Batzordeak "oso garrantzitsua deritzo herritarrek beren gizarte-babeserako sistemak epe luzera erakusten dituen aukerei buruzko informazio ulergarria eta fidagarria eskuratu ahal izateari"... Hala ere, testuan, pentsio sistema publikoaren jasagarritasunari buruz mintzatzean, biztanleriaren zahartzea baino ez da

aintzat hartzen, alderdi horren eragina indargabetu ahalko luketen beste faktore batzuk (aberastasunaren bilakaera, enplegua, soldatak,...) kontuan hartu gabe.

## Gomendio gehigarriak

Testuaren atal honetan, bost gomendio erantsen zaizkie Toledoko Itunak hasieran jasotzen zituen 14 puntuei. Gure iritziz, gomendio horiek nahiko zehaztugabeak dira, eta baita betetzen oso zailak ere. Horrez gain, testuak gai horietan gaur egun arte izan diren aurrerapenak aipatzen ditu; horiek ere eztabaidagarriak dira, guk uste. Hona hemen gomendio berriak erantsen zaizkien gaiak:

1. Lan-era berriak eta lanbide-garapena.
2. Emakumea eta gizarte-babesa.
3. Menpetasuna.
4. Minusbaliotasuna.
5. Inmigrazioa.

## Ondorioak

Itunak etorkizunean pentsioei buruzko lege berria izango dena biltzen du, baina Estatuko hauteskunde orokorren osterako uzten da lege hori. PP eta PSOE alderdi politikoen artean eratuak akordio horrekin EAJk eta beste batzuek ere egin dute bat. IU eta EA, berriz, abstenitu egin dira testuari dagokionez.

Ituna ideologiaren gainera dagoela pentsarazi nahi da. Baina benetako errealitatea hau da: azken urteetako politika publikoetan nagusi den ideologia neoliberalaren barruan dago. Aurkeztu den testu horrek ez dakarkio aldaketa handirik Toledoko Itunaren hasierako testuari, eta ELAk pentsioen inguruan arbuia izan dituen azken erreformen bidetik jarraitzea suposatzen du. Zehazki:

- Pentsio berrien zenbatekoa murriztea dakar, pentsioa kalkulatzeko, kontuan hartu behar den urte kopurua handitzea eta urte gutxiagoz kotizatu duten pertsonen kobratuko duten zenbatekoa murriztea proposatzen duelako.

- Aurretiazko jubilazioen kontra jotzen du.
- Langileen lan-bizitza luzatzea planteatzen du, horrek gazteen enpleguaren egoeran eragin kaltegarria duen arren.
- Testuak islatzen duen filosofiaren funtsezkoena defizitaren kontrola da. Horregatik, pentsioen sistema publikoan sortutako superabirik kontu publikoetako defizita murrizteko erabiltzen dira. Horrez gain, kontu publikoen orekak erabateko lehenetasuna du, bizimodu duina egin ahal izateko behar diren eskubideen gainera.

Era berean, zerbait esan nahi dugu CCOO eta UGTk erakutsitako jarrerari buruz. Bi sindikatu horiek Toledoko Itunaren alde eta, horren ostean, pentsioen sistemari egin zitzaion lehenengo erreformaren alde azaldu ziren bere garaian. Hurrengo erreforma PPK, CEOE eta CCOO onartu zuten. Oraingo Itunari dagokionez, bai UGTk bai CCOO (batez ere azken horrek) aldeko jarrera erakutsi dute. Gure iritziz, jarrera hori gizarte-eskubideen murrizketa dakarren politikarantzko beste urrats bat da, eta agerian uzten du sindikatu horien politika neoliberaleri esku zabaltasunez laguntzen dien eredu sindikala dela.

Azkenik, gogorazi behar dugu, ELA eskatzen datorrena: euskal erakundeek legegintza ahalmena eduki beharko luketela gizarte politikan (pentsioak barne). Hau horrela ez den bitartean, euskal biztanleriaren bizi baldintzetan eragina duten oinarrizko erabakiak espainiar Estatuan erabakitzen jarraituko dira. Premiazkoa da, beraz, gizarte eta lan arloan eskuduntza guztiak barneratzen dituen prozesu soberanista batetan aurrerantz joatea.